

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Abenduaren 14ko 360/2016 Foru Agindua, onartzea duena berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntzen 2017 eta 2018ko kanpainen deialdia

Abenduaren 17ko 1308/2013 EE Erregelamenduaren bidez, nekazaritza gaietarako azoken erakunde bat sortu zen Batasunean; eta batzordearen ekainaren 27ko 555/2008 EE Erregelamenduak eta hark izan zituen aldaketek kontseiluaren 479/2008 EE Erregelamendua garatu zuten, laguntza programei, beste herrialde batzuekiko merkataritzari, ekoizpen ahalmenari eta ardogintzako sektoreko kontrolei dagokienez.

1079/2014 Errege Dekretuaren 30. artikulua gehieneko epe bat xedatzen du, hain zuzen, zehazki urtetako ekainaren 20aren aurreko ostirala, erakunde ordaintzaileek egindako ordainketak jakinarazteko, MAGRAMAK autonomia erkidegoei ematen dizkien funtsak berresleitze aldera. Ostiral hori ekainaren 16a da 2017an eta ekainaren 15a 2018an. Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileak eskatu du foru aldundiek egin beharreko ordainketa proposamenak egiteko gehieneko epea astebete lehenago izan dadila, adierazitako datarako zenbaketa horretan sartu ahal izateko. Beraz, gehieneko ere 2017ko ekainaren 9an eta 2018ko ekainaren 8an aurkeztu beharko zaizkio proposamenak erakunde ordaintzaileari.

Era berean, funts horiek berresleitutakoan, gerakinak Nekazaritza Bermatzeko Europako 2016/2017 Funtsen kontura 2017ko urriaren 15a baino lehen gauzatzeko, erakunde ordaintzaileak egun hori baino lehenago ordaindu behar du, eta 2017ko urriaren 6a izango da azken eguna hura jakinarazteko. Nekazaritza Bermatzeko Europako 2017/2018 Funtsen kasuan, 2018ko urriaren 5a izango da azken egun hori.

Helburua da Erakunde Ordaintzaileari, ordaindu dezan, aurkeztea ahalik eta eskaera gehien ahalik eta luzapen txikienarekin; eta horretarako, helburu hori lortzea ahalbidetzen duten epeak ezarri behar dira, bai eta laguntza horren erakunde kudeatzaile Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren administrazio jardura eta kudeaketa egoki antolatu ere.

Bestalde, lursailen bertan ekintzak ez direla hasi egiaztatzeko egiten diren landa ikustaldiak nahitaezko eskakizuna dira baimena emateko obrak egiten hasteko eskaera egin ondoren baina plana onartu baino lehen. Horiek baliabide asko eskatzen dituzte, ohiko prozedurak baino askoz gehiago, berehala eta premiaz egin behar direlako. Beraz, sistema bat aurreikusi behar da ekintzak berehala hasteko eskaera egin eta gero ekintza horiek burutzen ez dituzten nekazarietara mesede ez egiteko.

Espainiako mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko egungo programaren indarraldia 2018ko uztailaren 31n bukatuko da eta oraindik ez da argitaratu PASVUE 2014-2018 programako planak 2019-2013 aldira pasatzeko baldintzak. Beraz, oraindik ez daude ezarritako egungo aldiko planak datorren aldira esleitura dauden funtsekin finantzatu ahal izateko baldintzak. Izan ere, gerta liteke hipotetikoki 2018ko urtarrilean eta otsailean aurkeztu diren planak finantzaziorik gabe geratzea 2018ko uztailaren 31ren ostean bukatzen direlako. Hortaz, epe luzeago bat eskaini behar da planak onartzeko eta obrak gauzatzeko 2017/2018 kanpainan.

Abenduaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretuan, mahastizaintza eta ardogintza sektorea laguntzeko 2014-2018ko programako neurriak aplikatzekoan; abenduaren 9ko 227/2014 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan mahastizaintza eta ardogintza sektorea laguntzeko Europako Erkidegoak emandako neurriak garatzeko eta aplikatzekoan; eta aurreko lerroaldeetan

xedatutakoarekin bat etorri, Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak honako hauek proposatzen ditu: mahastiak birmoldatu eta berregituratzeko planetarako 2017ko eta 2018ko dirulaguntza deialdia, ordainketa eskaerak aurkezteko data eta erakunde ordaintzaileari emango zaizkion ordainketa eskaerak jasotzeko data.

Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoaren, 40.18 artikulua Nekazaritza Saileko foru titularrari aitortutako eskumenez baliatuz, ondokoa

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Arabako Lurralde Historikoan mahastiak birmoldatu eta berregituratzeko planetarako -479/2008 EE Erregelamenduaren 11. artikuluan jasotzen dira- 2017ko dirulaguntza deialdirako prozedura, 548/2013 Errege Dekretuak, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 9ko 227/2014 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan mahastizaintza eta ardogintza sektorea laguntzeko Europako Erkidegoak emandako neurriak garatzeko eta aplikatzekoak, eta xedapen osagarriek araututako baldintza eta betekizunen arabera. Horretarako, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren funtsak esleituko dira eta plan horretan parte hartzeko eskaerak 2017ko urtarrilaren 9tik 2017ko otsailaren 24ra bitartean, biak barne, aurkeztu behar dira.

Bigarrena. Onartzea Arabako Lurralde Historikoan mahastiak birmoldatu eta berregituratzeko planetarako -479/2008 EE Erregelamenduaren 11. artikuluan jasotzen dira- 2018ko dirulaguntza deialdirako prozedura, 548/2013 Errege Dekretuak, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 9ko 227/2014 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan mahastizaintza eta ardogintza sektorea laguntzeko Europako Erkidegoak emandako neurriak garatzeko eta aplikatzekoak, eta xedapen osagarriek araututako baldintza eta betekizunen arabera. Horretarako, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren funtsak esleituko dira eta plan horretan parte hartzeko eskaerak 2017ko urriaren 9tik 2017ko azaroaren 24ra bitartean, biak barne, aurkeztu behar dira. Epe hori 2018ko lehenengo hiruhilekoari legokiokeen epea ordezkatu eta 2017ko azken hiruhilekora aurreratzen da.

Hirugarrena. Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuan aurkeztuko dira (Ardo Etxean kokatua dago, Arabako Guardian), astelehenetik ostiralera, jendea atenditzeko ordutegian, edo, bestela, urriaren 1eko 39/2015 Legean, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenean, horretarako ezarritako prozeduren bidez.

Laugarrena. Eskaerak, horren xede diren birmoldatze edota berregituratze planek eta, hala badagokio, mahastiak birmoldatzeko edota berregituratzeko plan horien onarpenek bat etorri behar dute aipatutako arau orokorretan ezarritako araubidearekin, eta zehazki hauekin: ekainaren 19ko 1079/2014 Errege Dekretua, Espainiako mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreari laguntzeko 2014-2018 programaren neurriak aplikatzeko; abenduaren 9ko 227/2014 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan mahastizaintza eta ardogintzaren sektorea laguntzeko Europako Erkidegoak emandako neurriak garatzeko eta aplikatzeko.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren 15 egun izango ditu administrazioak, planetan jasotako ekintzak edota neurriak hasita ez daudela egiaztatzeko. Behin epe hori igarota, interesdunek ekintzak egiteari ekin diezaioke baina horrek ez du esan nahi ondoren mahastiak berregituratzeko planaren aldeko ebazpena emango denik nahitaez. Hala ere, ekintzak lehenago hasteko asmoa izanez gero, horretarako prestatuta dagoen eredia betez egin beharko da eskaera.

Seigarrena. 2017ko maiatzaren 19a izango da Euskal Herriko Erakunde Ordaintzaileari ekainaren 9a baino lehen emango zaizkion ordainketa eskaerak aurkezteko azken eguna. Egun horretarako aurkeztu, baina osorik eta zuzen ez badaude eta urriaren 1eko 39/2015 Legean, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenean, xedatutako epe osagarria onartzen bazaie, gehienez ere ekainaren 2an osatu beharko dira, ekaineko ordainketa txandan ordaintzeko aukera egon ahal izateko. Horrela ez balitz, eskaera behar bezala bete ondorengo lehen ordainketa txandan sartzeko aukera izateko zain geratuko dira.

Zazpigarrena. 2017ko irailaren 15a izango da Euskal Herriko Erakunde Ordaintzaileari 2017ko urriaren 6a baino lehen emango zaizkion ordainketa eskaerak aurkezteko azken eguna. Egun horretarako aurkeztu, baina osorik eta zuzen ez badaude eta urriaren 1eko 39/2015 Legean, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenean, xedatutako epe osagarria onartzen bazaie, gehienez ere irailaren 29an osatuta egon beharko dira, urriko ordainketa txandan ordaintzeko aukera egon ahal izateko. Horrela ez balitz, eskaera behar bezala bete ondorengo lehen ordainketa txandan sartzeko aukera izateko zain geratuko dira.

Zortzigarrena. 2018ko maiatzaren 17a izango da Euskal Herriko Erakunde Ordaintzaileari 2018ko ekainaren 6a baino lehen emango zaizkion ordainketa eskaerak aurkezteko azken eguna. Egun horretarako aurkeztu, baina osorik eta zuzen ez badaude eta urriaren 1eko 39/2015 Legean, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenean, xedatutako epe osagarria onartzen bazaie, gehienez era ekainaren 24an osatuta egon beharko dira, ekaineko ordainketa txandan ordaintzeko aukera egon ahal izateko. Horrela ez balitz, eskaera behar bezala bete ondorengo lehen ordainketa txandarako geratuko dira.

Bederatzigarrena. 2018ko irailaren 13a izango da Euskal Herriko Erakunde Ordaintzaileari 2018ko urriaren 4a baino lehen aurkeztuko zaizkion ordainketa eskaerak aurkezteko azken eguna. Egun horretarako aurkeztu, baina osorik eta zuzen ez badaude eta urriaren 1eko 39/2015 Legean, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenean, xedatutako epe osagarria onartzen bazaie, gehienez ere irailaren 27an osatuta egon beharko dira, urriko ordainketa txandan ordaintzeko aukera izan ahal izateko. Horrela ez balitz, eskaera behar bezala bete ondorengo lehen ordainketa txandarako geratuko dira.

Hamargarrena. Ezartzea ekintzak hasi baino lehenagoko akta eskatu zuten baina gero ordainketa eskaera berori egin ondorengo lehenengo ordainketa txandan aurkeztu ez zituzten eskaerarako, eta beraz, berehalakotasuna edo presa justifikatu ez dutenarako, aukera izan dezaketen lehenengo ordainketa epea ordainketa eskaera egin ondorengoa izatea. Araudi hau aplikatuz ordainketa PASVE 2014-2018 programaren indarralditik kanpo egin beharko balitz eta planak 2019tik aurrera hurrengo aldira pasatzeko baldintzak arautzen dituen araudiak hori eragotziko balu, beti ere, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren 2017/2018 ekitaldian ordainduko lirateke.

Gasteiz, 2016ko abenduaren 14a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

ALFREDO SÁEZ DE CASTILLO BELTRÁN DE OTALORA